

Hizkuntza inperialismoaren morroiak kontraerasoan

Gaztelak Nafarroa konkistatu zuenetik (1512-1521) gaztelania gehiengo euskaldunari inposatzea izan da Nafarroa Garaia kolonizatzeke politikaren ardatzetako bat. Hizkuntza asimilazioa 1759an areagotu zen Gaztelako Carlos III.a eta Nafarroako VI.a tronura igotzearekin, erresumako lurralde guztietan irakaskuntza aldatzeko politikari ekin baitzion, gaztelania goستن, ezartzen eta inposatzen zuela inperioko hizkuntza ofizial gisa, mendeko guztiak hizkuntza berean mintzo zitezten. Politika glotozida hori XIX. mendean hauspotu eta diktadura faxistan larriagotu zen.

Kolonizatzeke politika gaztelauak edo espainiarrak bere helburu nagusietako bat erdietsi zuen: Nafarroa Garaiko XVI. mendeko gehiengo euskalduna desagertzeko zorian den hizkuntza gutxiengo bilakatzea. Suntsitze plan hau, Euskal Herriko gainerako lurraldeetan bezala, ideologia supremazista batean oinarritzen zen eta horrek herritarrei hezurretaraino sartu zien normala dela hizkuntza eskubiderik ez izatea edo hizkuntza berekiaren transmisioaren galera.

Diktadore faxista hil ondoren, euskara berreskuratzeko borrokan ziharduen (eta diharduen) mugimenduak lortu zuen 1980an Nafarroako Parlamentuak ebazpena onestea euskara ofiziala izan zedin Nafarroa guztian. Baina erregimenaren botere faktikoek, trikimailuez baliatuz, Vasconcearen Legea ezarri zuten 1986an, irizpide historikorik edo soziolinguistikorik gabeko hiru hizkuntza eremu marratuz. Xede bakarra zuten menderatze eta minorizatze egoera betiketzea. Politika horrek galarazten du maiz euskara ikastea eta administrazioan erabiltzea, edo ikustezin bihurtzen du hizkuntza paisaian.

2015eko maiatzean hizkuntza politika aldatzeko abagunea sortu zen lauakoaren gobernuarekin. Zenbait gauzak hobera egin zuen (neurri txiki batean), baina laster jabetu ginen ez zegoela batere asmorik Foru Komunitate guztian euskara ofizial bihurtuko zuen lege bat egiteko. Horren ordez, gaizki deitutako eremu ez-euskalduneko Udalei eremu mistora igarotzeko aukera eman zitzairen eta, ondorioz, banaketa are barregarriagoa gertatu zen aurrekoaren aldean. Euskararen erabilerari buruzko dekretu bat ere onetsi zen (hagitz murrizta), Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren bi epaiek hein handi batean baliogabetu dutena.

Ideologia espainolistako sindikatu batzuek aurkeztu dituzte pleituak Euskararen erabilerari buruzko dekretuaren aurka, ustez gure hizkuntza erdaldun elebakarrei inposatzeak eragiten dien bazterkeriarengatik, noiz eta begi-bistakoa denean gaztelania inposatzen zaiela beti Nafarroa Garaiko herritarrei. Horrela jokatzear, agerian utzi dute inperioak orain dela 500 urte baino gehiago ezarri zizkigun botere egituren morroi aritu direla.

Egoera honen aterabide bakarra da Nafarroa guztian euskara ofizial bihurtuko duen lege bat egitea eta hizkuntza politika bat, nafarrei euskaraz jakiteko eskubidea ziurtatu eta euskaldunei euskaraz bizitzea bermatuko diena.

Raul López Ekai eta Araceli Montes Calvo, STEILAS

www.steilas.eu

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eu

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eu

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eu

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eu